



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: CHARLIE AND THE CHOCOLATE FACTORY

© 1964, Roald Dahl Nominee, Ltd.

© 1995, Quentin Blake

© Itzulpena: 2019, Amets Santxez

© Euskarazko argitalpena:

2019, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa. Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-30-8

Lege-gordailua: M-16331-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2019ko otsaila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Irurk Itzulpenak eta Lander Azaola

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Charlie eta txokolate-lantegia

Roald Dahl

Irudiak: Quentin Blake

begiko

Theorentzat

Liburu honetan, bost haur ageri dira:

AUGUSTUS GLOOP

Mutiko tripontzia

VERUCA SALT

Gurasoek nahi duena ematen dioten neska

VIOLET BEAUREGARDE

Egun osoa txiklea jaten ematen duen neska

MIKE TEVÉ

*Telebista ikusi besterik egiten
ez duen mutikoa*

eta

CHARLIE BUCKET

Heroia

Hona hemen Charlie




11

Horko bi pertsona zahar-zahar horiek Bucket jaunaren aita eta ama dira. Aitona Joe eta amona Josephine dute izena.

Eta *horko* pertsona zahar-zahar horiek Bucket andrearen aita eta ama dira. Aitona George eta amona Georgina dute izena.





12 Hau Bucket jauna da. Eta hau, Bucket andrea.
Bucket jaun-andreak mutiko bat dute, Charlie
izenekoa.

Hau Charlie da.

«Kaixo! Zer moduz? Urte askotarako!».

Zu ezagutzeaz pozten da.

Familia honetako kide guztiak —sei heldu
(zenbatu itzazu) eta Charlie Bucket txikia— elkar-
rekin bizi ziren egurrezko etxetxo batean, he-
rri handi baten kanpoaldean.

Etxea txikiegia zen bertan hainbeste pertso-
na bizitzeko, eta bizitza oso deserosoa zen de-
nentzat. Etxean, bigelabaino ez zeuden, eta ohe
bakarra. Ohea lau aitona-amonei utzi zieten,
zahar-zaharrak zirelako eta neka-neka egin-
da zeudelako. Hain nekatuta zeuden, ezen
ez baitziren inoiz ohetik irten ere egiten.



Aitona Joe eta amona, Josephine alde batean; aitona George eta amona Georgina, bestean.

Bucket jaun-andreek eta Charlie Bucket txikiak aldameneko gelan egiten zuten lo, lurrean jarritako koltxoi batzuen gainean.

Udan, hori ez zen hain txarra, baina neguan, haize-laster hotz-hotzak sartzen ziren ate azpitik gau osoan, eta oso latza izaten zen.

Ez zuten inolako aukerarik etxe hobea erosteko, ezta beste ohe bat erosteko ere. Pobreegiak ziren horretarako.

Bucket jauna zen familian lana zuen bakarra. Hortzetako pastaren lantegi batean egiten zuen lan, eta, han, eserita egoten zen egun guztia, hortzetako pastaz betetako hodiei tapoitxoak jartzen.



Baina inork ez du sekula diru askorik irabazi tapoitxoak jartzen, eta Bucket jaun gaixoak, nahiz eta gogor lan egin eta tapoitxoak ahalik eta azkarren jarri, ezin zuen sekula irabazi hain familia handi batek behar zituen gauzen erdia ere erosteko adina. Denentzako janaria erosteko nahikorik ere ez zeukaten. Gosaltzeko, ogia eta margarina; bazkaltzeko, patata eta aza egosiak, eta, afaltzeko, azazopa. Ez zitzaien beste ezertarako iristen. Igan-deak apur bat hobeak ziren. Denak zain egoten ziren igandea noiz iritsiko. Egun horretan, nahiz eta janari berbera izan, bigarren platerkada bat jan zezaketen.

Bucketarrak, jakina, ez ziren gosez hilko, baina den-denek —bi aitona zaharrek, bi amona zaharrek, Charlieren aitak, Charlieren amak eta, bereziki, Charlie txikiak— huts-sentsazio gaizto bat izaten zuten sabelean goizetik gauera.

Charliek inork baino gehiago sentitzen zuen huts-sentsazio hori. Eta nahiz eta aita eta ama bazuetan bazkaldu edo afaldu gabe gelditu beraiei zegokiena Charlieri ematearren, hazten ari zen mutiko batentzat ez zen nahikoa. Charliek aza eta azazopa baino zerbait betegarriagoa eta asegarriagoa

nahi zuen, etsi-etsian. Zera nahi zuen beste ezer baino gehiago: TXOKOLATEA.

Goizean, eskolarako bidean, txokolate pusketa handiak ikusten zituen erakusleihoetan, elkarren gainean pilatuta tontor altuak osatuz, eta begira-begira gelditzen zen, eta beiraren kontra jartzen zuen sudurra, adurra barra-barra zeriola. Egunean zehar, askotan ikusten zituen beste haur batzuk patrikatik txokolate krematsuzko tabletak ateratzen eta zanpa-zanpa jaten, eta *hori*, jakina, tortura *hutsa* zen.

Charlie Bucketek urtean behin soilik dasta zezakeen txokolate apur bat: bere urtebetetze-egunean. Familia guztiak aurrezten zuen dirua egun berezi horretarako, eta, egun handia iristen zenean, Charlieri txokolate-tableta txiki bat ematen zioten opari, oso-osorik berak bakarrik jan zezan. Eta txokolate-tableta jasotzen zuen bakoitzean, urtebetetze-goiz zoragarri horietan, egurrezko kuxtatxo batean sartzen zuen, kontu handiz, eta urregorrizko lingote bat izango balitz bezala miresten zuen, eta, hurrengo egunetan, begiratu bakarrik egiten zion, ukitu gabe. Orduan, azkenean, gehiagorik jasan ezin zuenean, paperezko bilgarriari izkina

bateko zati *txikitxo* bat kentzen zion, txokolate zati *txikitxo* bat agerian jartzeko, eta, orduan, koska *txikitxo* bat ematen zion, zapore gozo zoragarriari mihian poliki-poliki hedatzen uzteko adina baino ez. Hurrengo egunean, beste koska *txikitxo* bat ematen zion, eta, horrela, amaitu arte. Hartara, urtebetze-egunean jasotzen zuen sei pennyko txokolate-tabletak hilabete baino gehiago irautea lortzen zuen Charliek.

Baina oraindik ez dizut esan zer gauza ikaragarrik sufriarazten zion Charlie txikiari, txokolate zaleari, beste *ezerk* baino gehiago. Gauza hori, Charlie txikiarentzat, askoz-askoz okerragoa zen erakusleihoetan txokolate pusketak ikustea edo beste haur batzuk bere begien aurrean txokolate krematsuzko tabletak zanpa-zanpa jaten ikustea baino. Imajina dezakezun sufrimendu ikaragarriena zen, eta haxe zen:

Herrian bertan, Charlie bizi zen etxetik *begibistan*, TXOKOLATE-LANTEGI ERRALDOI bat zegoen.

Pentsa!

Eta ez zen txokolate-lantegi erraldoi arrunt bat. Mundu osoko handiena eta ezagunena zen!

WONKAREN LANTEGIA zen. Willy Wonka izeneko gizon bat zen jabea, inoiz izan den txokolate-asmatzaile eta -egile handiena. Hura bai zela leku itzela, zoragarria! Barrura sartzeko burdinazko atea zituen, eta horma garai bat inguruan, eta kehodeiak irteten ziren tximinietatik, eta txistu-hots arraroak lantegiaren sakon-sakonetik. Eta hormetatik kanpora, milia erdi batez norabide guztietan, aireak txokolate urtuaren zapora gozo sarkorra zuen.

17

Egunean bitan, eskolara joatean eta gero itzultzean, Charlie Bucket txikiak lantegiko ateen aurre-aurretik pasatu behar izaten zuen. Eta handik pasatzen zen bakoitzean, bere pausoak moteltzen zituen, eta sudurra gora-gora jasotzen zuen, eta sakon arnasten zuen bere inguruko txokolate-usain zoragarri hura.

Ai, zenbat maite zuen usain hura!

O, nola irrikatzen zuen lantegian sartzea eta barrutik nolakoa zen ikustea!

Willy Wonka jaunaren lantegia

18 Gauetan, afaritako aza-zopa urtsua amaitu ondoren, Charlie beti joaten zen bere lau aitona-amonen gelara, haien istorioak entzutera, eta, gero, «Gabon» esatera.

Zahar horietako bakoitza laurogeita hamar urtetik gorakoa zen. Aranpasak bezain zimurtuta zeuden, eta eskeletoak bezain hezurtsu, eta, egunean zehar, Charlie agertu arte, uzkur-uzkur eginda egoten ziren ohe bakarrean etzanda, alde batean bi eta bestean bi, lo-txanoak jantzita burua bero mantentzeko, eta lo kuluxkak egiten zituzten denbora pasatzeko, ez baitzuten beste zereginik. Baina atea zabaltzen entzun orduko eta Charlie-ren ahotsa «Arratsalde on, aitona Joe eta amona Josephine, eta aitona George eta amona Georgina» esaten entzun orduko, jauzi batez tente-tente esertzen ziren laurak, eta haien aurpegi zaharretan

poztasunezko irribarreak pizten ziren, eta, orduan, hitz egiten hasten ziren. Izan ere, maite-maite zuten mutiko txiki hura. Haien bizitzako bizipoz bakarra zen, eta arratsaldean haiei bisita egitera noiz etorriko zain egoten ziren egun osoa. Maiz, Charlieren ama eta aita ere joaten ziren aitona-amonen logelara, eta ate alboan gelditzen ziren, zutik, zaharrek kontaktzen zituzten istorioak entzuten, eta, horrela, gauero, gutxi gorabehera ordu erdiz, gela hura leku zoriontsu bat bilakatzen zen, eta familia osoari ahazten zitzaion goseak zeudela eta pobreak zirela.

19

Gau batez, Charlie aitona-amonak ikustera joan zenean, galdetu zien:

—*Benetan* egia al da Wonkaren txokolate-lantegia munduko handiena dela?

—*Egia?* —esan zuten laurek aldi berean—. Izango ez da, ba! Jainkoarren, ez al zenekien *hori?* Beste edozein lantegi baino *berrogeita hamar bat* aldiz handiagoa da!

—Eta Willy Wonka *benetan* al da munduko txokolategile trebeena?

—Ene mutiko *maitea* —esan zuen aitona Joek, bere kuxin gainean apur bat tenteago jartzen zela—,

Willy Wonka jauna da munduan inoiz izan den txokolategile *harrigarriena, zoragarriena, miragarriena!* Uste nuen *denek* zekitela hori!

—Badakit ospetsua dela, aitona Joe, eta bada-
kit oso trebea dela...

—*Trebea!* —egin zuen oihu agureak—. Hori baino gehiago da! *Mago* bat da txokolatearekin!
20 *Edozer* egin dezake, nahi duen guztia! Ez al da hala, adiskideok?

Beste hiru zaharrek baietz egin zuten buruarekin, burua poliki-poliki gora eta behera mugituz, eta esan zuten:

—Halaxe da. Egia *hutsa*.

Eta aitona Joeek esan zuen:

—Zer esan nahi duzu, ez dizudala inoiz ezer *kontatu* Willy Wonka jaunari eta haren lantegiari buruz?



—Ez, inoiz ez —erantzun zuen Charlie txikiak.
—Jainko maitea! Ez dakit zer gertatzen zaidan!
—Kontatuko al didazu orain, aitona Joe, mese-
dez?

—Horixe baietz. Eseri ohean nire alboan, ene maitea, eta entzun arretaz.

Aitona Joe zen lau aitona-amonetatik zaharrena. Laurogeita hamasei urte eta erdi zituen, eta oso zaila da hura baino zaharragoa izatea. Pertsona zahar-zahar guztien antzera, ahula eta makala zen, eta, egunean zehar, oso gutxi hitz egiten zuen. Baina gaue-tan, Charlie, bere biloba kutuna, gelan zegoenean, gaztetu bezala egiten zen, modu harrigarri batean. Neke guztia galtzen zuen, eta bizi-bizi eta guztiz zirraratuta jartzen zen, mutiko bat bezala.

—Hura bai gizona hura, Willy Wonka jauna!
—esan zuen aitona Joek—. Ba al zenekien, esate-rako, berak bakarrik berrehundik gora txokolate-



tableta berri asmatu dituela, eta haietako bakoi-tza osagai desberdin batez beteta dagoela eta beste txokolate-lantegiek egin dezaketen beste edozer baino askoz gozo, krematsu eta gustagarriagoa dela?

—Egia hutsa da! —esan zuen amona Josephinek—. Eta mundu *osoan* barrena bidaltzen ditu! Ez al da hala, aitona Joe?

22

—Bai, ene laztana, hala da. Munduko erregerregina eta presidente guztiei ere bidaltzen dizkie. Baina ez ditu txokolate-tabletak bakarrik egiten. Ez, jauna! Oso asmakizun *zoragarriak* ditu eskupean gorderik Willy Wonka jaunak! Ba al zenekien txokolatezko izozkia egiteko modu bat asmatu zuela, orduak eta orduak hotz egon dadin hozkailuan egon gabe? Egun bero batean goiz osoan eguzkitan utzita ere, ez da urtzen!

—Baina hori *ezinezkoa* da! —esan zuen Charlie txikiak, aitonari harriturik begiratzen ziola.

—Jakina ezinezkoa dela! —esan zuen aitona Joek—. Guztiz *zentzugabea* da! Baina Willy Wonka jaunak horixe egin du!

—Hala da! —esan zuten besteek, aho batez, buruarekin baietz eginez—. Wonka jaunak horixe egin du!

—Eta gainera —ekin zion berriro aitona Joek, poliki-poliki hitz eginez, Charliek hitzik gal ez zezan—, Willy Wonka jaunak bioleta zaporezko malba-gozokiak egin ditzake, eta txupatu ahala hamar segundotik behin kolorez aldatzen diren karamelu bigunak, eta lumak bezain arinak diren gozokitxoak, ezpain artean jarri bezain laster urtzen direnak, alimaleko atsegina eraginez. Zaporea galtzen ez duten txikleak egin ditzake, bai eta azukrezko puxikak ere, tamaina erraldoia izan arte puztu ditzakezunak, orratz batekin zulatu eta irentsi aurretik. Eta errezeta sekretu-sekretu baten bidez, amilotx urdinarenaren antzeko arrautza zoragarriak egin ditzake, orban beltzekin eta guzti, eta, horietako bat ahoan sartzen duzunean, gero eta txikiagoa bihurtzen da, harik eta mihiaren puntan azukrezko txorikume arrosa txiki-txiki bat besterik gelditzen ez den arte.

Aitona Joek etenaldi bat egin zuen, eta ezpainak miatzkatu zituen mihiaren puntarekin, poliki-poliki.

—*Pentsatze hutsarekin* ahoa ur bihurtzen zait —esan zuen.

—Niri ere bai —esan zuen Charlie txikiak—. Baina, *mesedez*, jarraitu.

Hitz egiten ari ziren bitartean, Bucket jaun-andreak gelan sartu ziren, isil-isilka, eta, orain, biak ate ondoan zeuden, zutik, entzuten.

24 —Kontatu Charlieri indiar printze eroaren istorioa —esan zuen amona Josephinek—. Gustatu egingo zaio eta.

—Pondicherry printzeaz ari zara? —esan zuen aitona Joek, eta bere artean barrez hasi zen.

—*Gutziz* burutik jota zegoen! —esan zuen aitona Georgek.

—Baina *oso* aberatsa zen —esan zuen amona Georjinak.

—Zer egin zuen? —galdetu zuen Charliek jakin-minez.

—Entzun —esan zuen aitona Joek—, kontutuko dizut.